

EUSKARA BATZORDEAK 2013ko URRIAREN 2an IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

Esperanza Uriarte and (Euskara Zinegotzia)
Estiñe Astorkia and. (Euskara dinamizatzailea)
Jaione Iturbe and. (Udal Euskaltegia)
Igone Olabarria and. (Gernikako AEK)
Iratxe Garmendia and. (AEK- GUGAZTE egit.)
Agurtzane Renovales and. (Barrutia ikastetxea)
Bego Andres and. (Barrutialde Institutua)
Rosa Okariz and.
Ariane Ensunza and.

Idazkaria:

Bittor Zarrabeitia jna. (Euskara Teknikaria)

Hasiera ordua: 18:30

Amaiera ordua: 20:45

Ezin etorria zuritu dutenak:

Edurne Atxikallende and. (Busturialdeko Irrati Telebista)
Pernando Basterretxea jna. (Bustu. Euskaraz Bizi Elk.)
Luis Ortuzar jna. (Gernika Institutua / EAJ-PNV)

Aztergai nagusia: 2013-2017 eperako Plan Estrategikoaren zirriborria aztertzea (lehenengo helburu estrategikoa: ondorengoetaratzea / transmisioa (esparruak: 1.-familia / 2.-euskalduntze-alfabetatzea / 3.- irakaskuntza).

Euskara Zinegotziak eman dio hasiera batzarrari, Plan Estrategiko berriaren zirriborria gauzatzeko garatu den partaidetza prozesua azalduz eta une honetan eskuartean daukagun argitzeko.



Jarraian, batzordeko idazkariak Plan Estrategikoaren zirriborroaren egiturari buruzko argitasunak eman ditu. Nabarmentzekoak:

- Esparruak 11 izanik, bat dugu berria, “Herritarrak oro har” deitzen dena.
- Ekintza bakoitzaren kodearen esanahia.
- Zirriborroko testuaren koloreek adierazten dutena (**beltzez**, aurreko plangintzaldietatik datozen ekintzak, **urdinez**, gaur egun ekintza hori zelan garatzen den informatzeko, eta **gorriz**, partaidetza prozesuan egindako ekarpenak non jaso diren).

Ondoren, 1. helburu estrategikoko esparruetako zirriborria aztertzeari ekin zaio:

Familia esparrua:

Luis Ortuzar jaunak batzarrera ezin etorri eta egindako ekarpen bat onartu da: *1.1.1. estrategian (sentsibilizazioa) hauxe txertatzea: Gurasoenganako estrategia bereziak lantzea irakaskuntza zentroetako Normalkuntza Planen bitartez.*

Ekarpen gisa jasota dagoen ekintza berria dela eta (Jaurlearitzaren ardurapean errolda berriztatzen denean, euskarari buruzko galderak eta datuak jasotzeko bideak jorratu) informatu egin da oraintsu sinatu den konpromisoa dela-eta, hau da, HPSk, hiru Aldundiek, Nafarroako Hizkuntza Politika erakundeak eta Iparraldeko kultur erakundeak bat egin dute euskarari buruzko adierazle sistema bateratu bat finkatzeko. Guk eragin genuen goiko arlo horretan goi erakundeek erantzun zuzena eman dute, momentuz behintzat.

Erabakia: Luis Ortuzar jaunak egindako ekarpena ontzat eman eta esparru horretako ekintza zerrenda onartzea.

Euskalduntze-alfabetatze esparrua:

Aurreko Plan Estrategikoetan potoloagoa zen esparru hau, murriztu egin zaigu oraingoan, sortu den esparru berrira bideratu direlako hemengo ekintza batzuk (Berbalaguna-ri lotutakoak eta kale neurketari buruzkoa).



Hausnarketa berezia egin da ikastalde bereziak sortzeko eta modulu bereziak eskaintzekorakoan landu beharreko estrategiez, gurasoen eta etorkinen kasuan batik bat.

Erabakia: 2.1.3.3. ekintza (2015ean erabileraren kale neurketa berezia egin Soziolinguistika Klusterraren eskutik) “Herritarrak oro har” esparrura pasatu eta gainerako ekintzak ontzat ematea.

Irakaskuntza esparrua:

Kasu honetan berezitasun baten berri eman da. Badago 3.2.2.3. ekintza (*Plan Sektorial bat garatu -urteko eskolaz-kanpoko plangintza-*), hainbat azpiekintza barru hartzen dituena eta aurreko Plan Estrategikoetan ere ekintza zehatz modura jasota egon direnak. Horretarako arrazoia da Aldundiak eta Jaurlaritzak egindako diru laguntza deialdietarako saritu egiten dela modu bateratuan irakaskuntzako aurkeztuz gero.

Erabakia: irakaskuntza esparrurako jasotako ekintzak ontzat ematea.

2).- 2013ko aurrekontuaren berri ematea (abuztuan onartu zen).

Aurtengo udal aurrekontua onartzeko gora-beheren berri eman da eta Abuztuaren 28ko Osoko Bilkuran onartu zenez, batzarkideen artean banatu da euskara arloko partiden banaketa. Euskara zinegotziak azaldu duenez, 2012koaren aldean diru gutxiago egon da eta partidetan lehentasunak finkatzeko orduan Euskara Batzordeak 2012an erabakitakoaren arabera jokatu da.

Aldez aurretik, www.gernika-lumo-euskaraz.com web gunean ere ikusgai dago.

Hurrengo bilera 2013ko urriaren 23an egitea erabaki da eta aztergaia hauxe:



Plan Estrategiko berrirako zirriborroan 2. helburu estrategikorako (Euskararen erabilera) jaso diren ekintzak aztertzea. Esparruak:

- Administrazioa (Udal Administrazioko Erabilera Plan berriaren zirriborroaren laburpena).
- Lan-Mundua
- Aisia
- Kirola
- Herritarrak oro har.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Izp.: Euskara Zinegotzia
Esperanza Uriarte

Izp.: Euskara Teknikaria (HNT1)
Bittor Zarrabeitia

